

BESTELAKO XEDAPENAK

ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

4630

EBAZPENA, 2025eko urriaren 20koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetza-erakundeei laguntzak ematea ebazten duena, 2025. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (apirilaren 9ko EHAA, 67. zk.) lankidetza-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeotan genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak sustatzeko.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2025eko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez (ekainaren 6ko EHAA, 106. zk.), lankidetza-erakundeei laguntzak emateko deialdia egin zen, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren prozesuak 2025. urtean sustatzeko.

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 6. oinarriaren bidez izendatutako Hautaketa Batzordeak emandako txostenean oinarriturik kudeaketa-organoak laguntzak emateko egindako proposamena ikusita, laguntza-eskabideen azterketa teknikoa eta balorazioa egin ondoren, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2025eko maiatzaren 15eko Ebazpenean deitutako dirulaguntzak ematea I. eranskinean jasotako erakundeei, eranskinean bertan aipatutako zenbatekoan eta eran, eta dirulaguntzak ukatzea II. eranskinean zerrendatutakoei, adierazten diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea erakunde interesdunei.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, beronen kontra gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio eLankidetza - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako presidenteari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu eta hiru hilabete epean ebazpena eman ez bada, errekurtsua ezetsizat jo ahal izango da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzibidea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 20a.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER CORTÉS FERNÁNDEZ.

2025eko urriaren 31, ostirala

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Helburua	Espedientea	Entitate eskatzailea	Puntuak	Dirulaguntza (eurotan)
Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea	GBA-2025BA/0011	Arabako medicus mundi	81	39.282,93
Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea	GBA-2025BA/0006	Comite español de la unrw - aceu elkarte	79	29.520,58
Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea	GBA-2025BA/0003	Adeco amistad desarrollo y cooperacion elkarte	77	32.475,25
Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea	GBA-2025BA/0012	Garabide kultur elkarte	75,5	37.085,49
Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea	GBA-2025BA/0001	Egoaizia Garapenerako Lankidetzarako Elkarte	63,32	29.635,75

2025eko urriaren 31, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK FUNTSAK AGORTUTA EGOTEAGATIK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Helburua	Puntuak
GBA-2025BA/0008	Bizilur Herrien Lankidetzeta eta Garapenerako Elkartea	Genero berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea	67